

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKERA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Diputatu nagusiaren 367/2016 Foru Dekretua, abenduaren 19koa, 2017ko deialdi publikoa onartzen duena dirulaguntzak emateko irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateei eta kirol eta guraso elkarten federazioei, euskararen bitartez sozializatzeko programak gara ditzaten

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak proposatu du irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateei, kirol federazioei eta guraso elkarten federazioei dirulaguntzak emateko deialdi publikoa egitea, 2017ko ekitaldian euskararen bitartez sozializatzeko programak gara ditzaten.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, dauzkadan ahalmenak erabiliz eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Dirulaguntzen deialdi publikoa onartzea irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateentzat, kirol federazioentzat eta guraso elkarten federazioentzat, 2017ko ekitaldian euskararen bitartez sozializatzeko programak gara ditzaten; gehieneko dotazioa 100.000 eurokoa izango da, eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak arautuko du (ALHAOn 123. zenbakian argitaratua, 2015eko urriaren 21ean), zeinaren bidez onartu baitziren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri orokor arautzaileak.

Bigarrena. Dekretu honen bidez araututako dirulaguntzak, 100.000 euroko zenbatekoaz, Arabako Foru Aldundiaren 2017rako aurrekontu antolamenduko 70.1.0778.00.481.00.04 partidaren kontura ordainduko dira.

Hirugarrena. Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, organo eskudunak bidezko den ebazpena hartuko du; horretarako, gehienez ere, sei hilabeteko epea izango du, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe hori igarota esanbidezko ebazpenik hartu ez bada, interesa dutenek ulertu beharko dute eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko diputatu nagusiari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena. Deialdiaren behin betiko ebazpena baldintza etengarri honen mende egongo da: Arabako Foru Aldundiaren 2017rako aurrekontu antolamenduan kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Gasteiz, 2016ko abenduaren 19a

Diputatu nagusia, Ramiro González Vicente
EUSKARA, KULTURA ETA KIROL DIPUTATUA
Igone Martínez de Luna Unanue

Eranskina

Irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateei, kirol federazioei eta guraso elkarteen federazioei dirulaguntzak emateko deialdi publikoa, 2017an euskararen bitartez sozializatzeko programak burutu ditzaten

Oinarriak

Lehenengoa. Xedea eta helburua

Deialdiaren helburua da lehiaketa bidez dirulaguntzak ematea kultura elkarte eta entitateei, kirol federazioei eta kirol federazioen elkarteei eta guraso elkarteen federazioei, 2017ko ekitaldian euskararen bitartez sozializatzeko programak antolatu, garatu eta burutu ditzaten, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak xedatutakoaren eremuan, zeinaren bidez onartu baitziren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak.

Bigarrena. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoak ezingo du inola ere gainditu helburu horretarako jarri den zenbatekoa, hau da, 100.000,00 euro. Arabako Foru Aldundiaren 2017ko aurrekontuko "Euskararen bitartez sozializatzeko programa. Irabazteko xederik gabeko erakunde eta elkarteak" izeneko 70.107.78.00.481.00.04 partidaren konturakoa da zenbateko hori.

Deialdiaren behin betiko ebazpena baldintza etengarri honen mende egongo da: Arabako Foru Aldundiaren 2017rako aurrekontu antolamenduan kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Dagoen zenbatekoa honela banatuko da:

a) Ehuneko 90. Eremu honetan bakar-bakarrik parte hartu ahal izango dute irabazteko xederik gabeko kultura elkarte eta entitate publiko nahiz pribatuek, sozietatearen egoitza edo ordezkaritza Araban edo Trebiñuko Konderrian badute; federazioetan elkartuta ere aurkez daitezke.

b) Ehuneko 10. Atal honetan honako hauek bakarrik parte hartu ahal izango dute: sozietatearen egoitza Araban duten kirol federazioek, kirol elkarteen federazioek eta ikasleen guraso elkarteen federazioek.

Esleitzeko dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoak ezin izango ditu gainditu eranskin honen zazpigarren paragrafoan berariaz zehaztutako ehunekoak, eta inola ere ez da izango 10.000 euro baino gehiago elkarte edo erakunde bakoitzeko.

a) eta b) ataletako proiektuei emateko dirulaguntzak kalkulatu eta gero horietakoren batean soberakina badago, balioespen batzordeak proposatu ahal izango du soberakin hori beste atalera bidertzea.

Hirugarrena. Erakunde onuradunak eta baztertuak

Entitate onuradun izango dira:

1. Irabazteko xederik gabeko kultura elkarte eta entitate publiko nahiz pribatuak, Araban edo Trebiñuko Konderrian baldin badute sozietatearen egoitza edo ordezkaritza; federazioetan elkartuta ere aurkez daitezke.

2. Kirol federazioak eta kirol federazioen elkarteak, sozietatearen egoitza Araban badute.

3. Guraso elkartearen federazioak, sozietatearen egoitza Araban badute.

Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak esleitzeko oinarri arautzaileak onartu zituenak, hirugarren klausulan aipatzen dituzenez gainera, honako hauek ezin dira onuradun izan:

a) Kuadrillak, udalak, administrazio batzarrak, udal institutuak eta horietan sartuta edo horiei atxikita dauden talde eta elkarteak.

b) Ganberak, kooperatibak, elkargoak, sindikatuak edo, oro har, merkatari, teknikari, langile eta profesional elkarteak, guraso elkarteak eta horiei atxikitako, horietan sartutako edo horietatik sortutako talde eta elkarteak.

c) Elkarteak, taldeak eta antzekoak, beren estatutuetan jasotako xede edo helburuen artean lehentasunik ez badute kultura izaerako edo euskararen erabilera sustatzeko jarduerak, eta burutzen dituzten programak ez badira ildo horretakoak.

Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak

Diruz laguntzeko moduko programek beren jarduera eta prozeduren bidez euskaraz sozializatzea izan beharko dute berariazko eta ageriko helburua, eta/edo hizkuntza ohiturak xede izan, betiere euskararen normalizazioaren ikuspegitik.

Diruz lagundutako programek eremu hauetan jardun beharko dute: gazteria, aisialdia, kirola, euskalduntzea eta alfabetatzea, familia barruko transmisioa eta hezkuntza, kultur ekintzak, gizarte eta ekonomia eremua, komunikabideak eta IKTak eta administrazioa. Diruz lagundutako programako zuzeneko gastuak hartuko dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat.

Euskalduntze eta alfabetatze gastuetatik kanpo geratuko dira dirulaguntzaren onuradun diren erakundeei atxikitako langileen euskara ikastaroek eragindako gastuak.

Mintzalaguna, Kuadrillategi eta antzeko programetan, zeinetan hainbat lagun elkartzen baitira, aisialdian aldiro eta era programatuan euskarazko mintzapraktika informala sendotzeko, koordinazio gastuak osorik izango dira diruz laguntzeko moduko, hots, ehuneko 100ean.

Ez dira diruz laguntzeko modukoak izango, dirulaguntza lortzeari eta/edo justifikatzeari dagokienez, ondoko gastu hauek:

a) Euskaraz egin arren, euskararen bitartez sozializatzeko prozedurak jasotzen ez dituzten programak.

b) Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.

c) Ordezkaritza, protokolo, oturuntza eta opari gastuak, eta antzekoak.

d) Inbertsio gastu direnak.

e) Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (BEZaren kuota kengarria).

Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, 18.000 euro edo gehiago bada hornitzaile bakar baten eskaintzari egotzi ahal zaion diruz laguntzeko moduko gastuaren zenbatekoa, erakunde onuradunak

eskaintza bana eskatu beharko die gutxienez hiru erakunde hornitzailei, zerbitzua emateko konpromisoa kontratatu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa erakunde ez badago zerbitzu edo hornidura hori egiten duenik edo dirulaguntza eskaera baino lehenago egin bada gastua.

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatu behar du jaulkitako agiri guztietan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea betez (4/2005 Legea, otsailaren 18koa). Lege horri jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezingo dira erakutsi pertsonak, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, saihestu egingo dira estereotipo sexistak eta roletan eta genero identitateetan sexu aniztasuna bultzatuko da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuari zuzenduta bidali beharko dira, I. eranskinen argitaratzen den ereduari lotuta.

2. Eskaerekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Administrazio agiriak.

1. Eskaera, I. eranskinaren arabera.

2. Eskaera izenpetzen duenaren NANaren fotokopia.

3. Elkarte edo entitate onuradunaren ordezkartzan diharduela egiaztatzen duen agiria.

4. Entitatearen estatutuen fotokopia, eta legez eraturik dagoela eta elkarte eta entitateen erregistroan inskribaturik dagoela frogatzen duten agiriak. Euskara, Kultura eta Kirol Sailean aurretik aurkeztu zituzten erakundeek ez dute berriro aurkeztu beharrik izango, salbu eta harez gozotik aldaketaren bat egin badute.

5. Eskaera hau aurkeztu baino lehen ez bada entitatea identifikatzeko daturik aurkeztu, hari alta eman edo kontabilitateko hirugarrenen fitxategian jasota dauden datuak eguneratu ahal izateko, ondoko datu hauek aurkeztuko dira, baimena duen pertsonak sinatuta eta agiri bakar batean bilduta:

- Sozietatearen egungo helbidea, telefonoa, faxa eta/edo posta elektronikoa.

- Banku kontuaren zenbakia, hogeituekin eta IBANekin.

- Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia (IFZ).

6. Zinpeko adierazpena, non jasoko baita aisialdiko programak (udalekuak, jolas txokoak, edo horien antzekoak) gauzatu dituzten langileek, gutxienez, Batxilergoa euskaraz ikasi dutela, edo egiaztatu dutela B2 maila, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren arabera, edo baliokidea.

7. Aisialdiko programetarako (udalekuak, jolas txokoak edo antzekoak), zinpeko adierazpena, non jasoko baita haren arduraren duten langileentzat gutxienez ehuneko 70ek euskararen bitartez sozializatzeko ikastaro bat bederen eginda daukatela 2017ko ekainaren 30erako. Haren arduraren duena pertsona bakarra izanez gero, zinpeko adierazpena, pertsona horrek euskararen bitartez sozializatzeko ikastaro bat bederen eginda daukala 2017ko ekainaren 30erako.

8. Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko dauden baliabideak: giza baliabideak, baliabide materialak eta azpiegiturak.

b) Berariazko agiriak, II. Eranskinaren arabera.

1. Programa bakoitzaren deskribapena:

— Programaren titulua.

— Helburua.

– Hartzaileak.

– Euskararen sozializatzeko maila

– Programako gastu eta diru sarreraren aurrekontu xehatua. Diru sarreraren atalean zehaztu beharko dira beste administrazio batzuei eskatutako dirulaguntzak, entitatearen ekarpena, Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eskatutako zenbatekoa eta bestelako diru sarrerak, halakorik izanez gero.

2. Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko dauden baliabideen gaineko ziurtagiria: giza baliabideak, baliabide materialak eta azpiegiturak.

Seigarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zazpigarena. Prozeduraren bideratzea eta balorazio irizpideak.

1. Prozedura bideratzeko eskumena Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskararen Foru Zerbitzuak izango du.

2. Balorazio irizpideak.

Hartzaileak euskararen bitartez sozializatzea da helburua. Hortaz, ondoko irizpide hauek aplikatuko dira:

a) Programaren koherentzia maila eta kalitatea. (Gehienez ere, 20 puntu). Helburuak, programaren hartzaileak eta haren prozedurak. Ez da nahikoa izango jarduera euskaraz egitea.

- Gabeziak ageri dira helburuen eta/edo prozeduren artean.....0
- Koherentzia ageri da helburuen eta prozeduren artean.....10
- Koherentziaz gainera, kalitatea ageri da helburuen eta hartzaile izango diren pertsonentzako prozeduren artean.....20

b) Hartzailearen lehentasuna. Gehienez ere, 20 puntu

Hartzailea zehaztuta daukaten programak.

- Hartzaileak oro har.....5
- Berariazko hartzaileak.....15
- Berariazko hartzaileak, proiektuan genero ikuspuntua jasota.....20

c) Programaren hartzailea den pertsona euskararen bitartez sozializatzen den maila. (Gehienez, 60 puntu).

- Ez du proposatzen euskararen bitartez sozializatzeko neurririk.....0
- Euskararen bitartez sozializatzeko prozedura orokorrak proposatzen ditu.....15
- Euskararen bitartez sozializatzeko neurri orokorrak proposatzen ditu.....30
- Euskararen bitartez sozializatzeko prozedura eta neurri espezifikoa proposatzen ditu.....60

Irizpide guztietako puntuak baturik, guztirako puntu kopuru unitario bat aterako da. Kopuru horrek, ondoren azaltzen den eskalara eramanda, emateko den dirulaguntzaren gehieneko ehunekoa adieraziko du, dirulaguntza kalkulatzeko hartutako aurrekontuaren gainean.

PUNTU KOPURUA	DIRULAGUNTZAREN GEHIENENKO EHUNEKOA
0 - 30 puntu	0
31 - 48 puntu	30
49 - 62 puntu	40
63 - 80 puntu	60
81 - 100 puntu	80

Ateratzen diren ehunekoek deialdiaren diru zuzkidura gainditzekotan, hartzeko diren zenbatekoak hainbanatu egingo dira aurretik azaldutako eskalan ezarritako ehunekoaren proportzio berdinean, haiek deialdiaren aurrekontu baliabide erabilgarrietara egokitzeko.

Zortzigarrena. Ebazpena

1. Euskararen Foru Zerbitzua izango da prozedura bideratzeko organo eskuduna.
2. Eskaerak balorazio batzorde batek aztertuko ditu. Batzorde horren lehendakaria Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria izango da, eta honako hauek osatuko dute mahaikide gisa: Euskararen Foru Zerbitzuaren burua eta Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari. Euskara, Kultura eta Kiroletako Idazkaritza Teknikoaren burua izango da idazkaria, eta hitza izango du, baina botorik ez.
3. Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientearen atzeratzea, eta are artxibatzea ere.
4. Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeraren arteko lehentasuna ezarriko du.
5. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena hartzeari begira ez baitira aintzat hartuko entitate onuradunek aurkeztutako egitateak eta agiriak baino.
6. Organo eskudunak, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena ikusita, bidezko den ebazpena hartuko du; horretarako, gehienez ere, sei hilabeteko epea izango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe hori igaro eta esanbidezko ebazpenik hartu ez bada, interesa duten erakundeek ulertu beharko dute eskaerari ezezkoa eman zaiola.
7. Dirulaguntzak emateko ebazpenean, dirulaguntza ematen zaien entitate onuradunak adierazi beharko dira, eta gainerako eskaerak espresuki ezesten direla.
8. Hainbanaketa egitearen ondorioz dirulaguntza murrizten den kasuetan, eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunari eskatu ahal izango zaio bere eskaera berriro formulatu dezala, konpromisoak eta baldintzak eman ahal zaion dirulaguntzara egokitzeko.
9. Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertu beharko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta dirulaguntza zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpenaren berri emango zaie onuradunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.
10. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.
11. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari eta haren aurka, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenaren, 46.1

artikuluaren xedatutakoari jarraituz, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegi egokian. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurka ez egitekotan, nahi izanez gero errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena hartu zuen organo berari, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritz.

Bederatzigarrena. Emandako dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea

1. Ordainketa era honetan egingo da:

– Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 60, justifikatu beharreko aurrerakin moduan, esandako ebazpenaren datatik aurrera ordainduko da.

– Gainontzekoa ordainaldi bakar baten ordainduko da, egindako gastuak, behar bezala zerrendatuak, justifikatu ondoren, eta azken ordainketa honi aurreko paragrafoan aipatutako "aurrerakina" kenduta. Gastu guztien froga-agiriak aurkezteko epea 2017ko abenduaren 29an amaituko da.

Lortutako dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu direla frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin moduan ordainduko da dirulaguntza.

2018ko otsailaren 23ra arteko epean aurkeztu beharko dira dirulaguntza justifikatzen duten gastuak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak.

Elkarte eta erakundeek beren baimena espresuki adierazi baldin badute, ez da beharrezkoa izango aurkeztutako hiruhileroko 110 ereduak (PFEZko atxikipenak eta konturako sarrerak) aurkeztea eta horiek ordaindu direla egiaztatzea, ez eta 190 eredu ere (Atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena).

2. Gastuak frogatzeko, entitate onuradunek justifikazio kontu erraztua aurkeztuko dute, zeina arautzen baitute urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 28.1 eta 2 artikuluetan eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren lehia bidezko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzen dituenak, 10. artikuluan, eta, horretarako, nahitaez bete beharko dute III. eranskina.

Honela egongo da osatuta justifikazio kontu erraztua:

1. Jarduketa memoria, egiaztatu beharko duena dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla, gauzatutako ekintzak eta lortutako emaitzak adierazita.

2. Jardueraren gastu guztien zerrenda sailkatua, hau da, jardueraren aurrekontu osoa; zerrendan jarri beharko dira hartzekoduna, gastuen agiria edo faktura, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data.

3. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreraren eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4. Hala badagokio, itzulketaren ordain gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; bai eta horietatik eratorritako interesena ere.

Banaka edo multzoka gastu kontzeptu bererako 1.000 euro (BEZa aparte) gaintitzen direnean bakarrik aurkeztu beharko dira jatorrizko fakturak edo balio bereko agiriak, baita horiek ordaindu izanaren froga-agiriak.

Organo bideratzaileak egokitzen dituen dokumentu, argibide, froga-agiri eta faktura guztiak eskatu ahal izango dizkie entitate onuradunei, dirulaguntza dagokion xederako ez besterako erabili izanaren arrazoizko ebidentzia lortzeko.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Jaulkitzailea, beraren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ
- Hartzailea, beraren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data
- Faktura zenbakia.

Ez dira onartuko justifikazio gastu gisa PFEZeko konturako atxikipenen gaian (PFEZ, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) zerga araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak.

Fakturak ordaindu direla egiaztatzekeo agiriei dagokienez, ordainketaren froga-agiri hauek onartuko dira:

- Jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzailearen zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz.
- Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua jarrita daukala.
- Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Posta arruntez jasotako jatorrizko banku laburpenak.
- Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak.
- Jatorrizko erosketa txartelak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza gune, autobide, bidaiak txartel eta abar)

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2017rako indarreko araudian ezarriko den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabaliao atzerriko monetetan).

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, eta ondasunak entregatzea edo zerbitzuak ematea zatika egin bada, batu egingo dira egindako eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak.

3. Jasandako BEZeko kuotak diruz laguntzeko moduko gastu bezala konputatzeari begira, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren ebazpena edo zerga egoitza daukaten lurraldeko zerga administrazioarena aurkeztu beharko dute, zeinean BEZaren Foru Arauaren 20.hiru artikuluan aurreikusten den izaera soziala aitortzen zaion entitateari, arau horren 20.bat artikuluko 12. eta 14. idatz zatietan jasotzen den zergaren salbuespena aplikatzeari begira.

4. "Mintzalaguna," "Kuadrillategi" edo antzeko programetan, 2. puntu adierazitako agiriez gainera, hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Gastuen taula eta entitate onuradunaren ordezkartzan diharduen pertsonaren idazki bat, V. eranskinaren arabera, atxikitako langileak eta horien dedikazioa eta kostua ziurtatzen dituenak. Langile horiei dagozkien nominen eta Gizarte Segurantzako TCen originalak aurkeztu beharko dituzte, langileak zuzenean kontrataturik badaude, eta faktura(k), zerbitzua beste entitate batekin azpikontratatu bada.

- Programako parte-hartzaileen zerrenda nominala, pertsona eta talde kopurua, guztira, eta programaren iraupena.

5. Aisialdi programetan (udalekuak, jolas txokoak, tailerrak eta antzekoak), 3. puntuari adierazitako agiriez gainera, hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

– Programa gauzatuko duen enpresaren memoria, non zehazten den zer mailatan lortu duen programak euskararen bitartez sozializatzea.

– Egiagtagiria, ziurtatuz aisialdi programaren ardura duen monitoreak, gutxienez, euskaraz ikasi duela Batxilergoa, edo egiaztatu duela B2 maila, hizkuntzen Europako erreferentzia marko bateratuaren arabera, edo baliokidea.

– Frogagiriak, frogatuz ezen programaren ardura duten langileen artean ehuneko 70ek bederen eginga duela 2017ko ekainaren 30erako euskararen bitartez sozializatzeko ikastaro bat gutxienez.

– Elkartearen lehendakariaren ziurtagiria, aisialdi zerbitzua emateko kontratatu diren monitoreen izen-abizenak adierazten dituenak.

Hamargarrena. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Emandako dirulaguntzak bateragarriak dira nazioko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jarduera edo programa bererako emandako beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez badu gainditzen diruz lagundutako programaren edo programen kostua.


Entitate onuradunak, helburu bererako, beste dirulaguntza edo laguntzaren bat eskatu badio beste administrazio edo erakunde publiko bati, den estatukoa edo nazioartekoa, edo beste entitate edo erakunde pribatu bati, edo beste dirulaguntza edo laguntzaren bat lortu badu horrela, jakinarazi egin beharko dio dirulaguntza esleitu dion organoari.

Hamaikagarrena. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahaleginak egingo dira komunikabideetan ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan.

Era berean, eranskinak digitalki eskura daitezke web orri honetan: www.araba.eus edo beste honetan: www.euskaraba.eus.

Euskararen Foru Zerbitzuak www.euskaraba.com. web orrian argitaratu ahal izango du diruz lagundutako programa edo jarduera.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Euskararen bitartez sozializatzeko irabazi asmorik gabeko elkartearen dirulaguntzaren eskaera orria</p> <p>Solicitud de subvención de Asociaciones sin ánimo de lucro para desarrollar programas de socialización a través del euskera</p> <p>2017</p>
---	---

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

I ERANSKINA ■ ANEXO I

Eskaera zk. ■ Nº Solicitud

Eskaera data ■ Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo				Identifikazio zk. ■ Nº identificativo		Sexua ■ Sexo		
<input type="checkbox"/> IKZ CIF	<input type="checkbox"/> NAN DNI	<input type="checkbox"/> AIZ NIE	<input type="checkbox"/> Besteren bat Otro			<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre	
Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social				Lehen abizena ■ Primer apellido		Bigarren abizena ■ Segundo apellido		
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)				Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
Herrialdea ■ País		Probintzia ■ Provincia		Udalerría ■ Municipio		Herria ■ Localidad		P. K. ■ C. P.
Telefona ■ Teléfono		Mugikorra ■ Móvil		Faxa ■ Fax		Posta elektronikoa ■ Correo electrónico		

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL ⁽²⁾

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)				Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
Herrialdea ■ País		Probintzia ■ Provincia		Udalerría ■ Municipio		Herria ■ Localidad		P. K. ■ C. P.


LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo			Identifikazio zk. ■ Nº identificativo		Sexua ■ Sexo	
